


euskararen berripapera



190

Hizkuntza-politikan elkarlanean aritzeko oinarriak finkatu dituzte **Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak**

Lan-batzordeen bidez, besteak beste, euskararen ikerketa, aholkularitza, itzulpengintza, helduen euskalduntzea, belaunaldien arteko hizkuntzaren transmisioa eta toponimia jorratuko dituzte bi gobernuek elkarlanean.



Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak bileran.

Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko hizkuntza-politikako ordezkariak politika irizpide ezberdinak alde batera utzi eta euskara indarberritzeko konpromisoa hartu berri dute. Konpromiso hori bi gobernuetako hizkuntza-politikako arduradunek, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusian, otsailaren 22an egindako bileran hartu zen. Azken zortzi urteotan hizkuntza-politikaz hitz egin gabe egon ondoren, hizkuntza-politikan lankidetzan aritzeko oinarriak finkatu zituzten elkartutakoek, hau da, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Carlos Pérez-Nievas Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak eta Xabier Azanza Euskararen Nafar Institutuko (ENAI) zuzendariak.

Adostutako elkarlana, besteak beste, berariazko batzordeen bidez jorratuko diren honako esparru hauen ingurukoa izango da: euskararen ikerketa, aholkularitza, itzulpengintza, helduen euskalduntzea, belaunaldien arteko hizkuntzaren transmisioa eta toponimia.

Hori lortze aldera, euskararen mesederako gai horietan gobernu bakoitzak izan dezakeen eskarmentua edo


informazioa trukatzeko borondatea erakutsi zioten elkarri. Azkarateren hitzetan, «pentsaezina da Nafarroako Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren terminologia desberdina izatea edota Nafarroako eta EAeko medikuek erabiltzen duten terminologia desberdina izatea».

Bi gobernuen helburua «euskarak bilakaera eta etorkizun onena» lortzea da Azkarateren hitzetan. Begirunean oinarrituta, hizkuntzaren etorkizuna elkarrekin lantzeko gogoia agertu eta «bi gobernuen borondatea ondare komun hori kontserbatzea» dela adierazi zuen. Nafarroako Hezkuntza kontseilaria bat etorri zen Azkaraterekin bi gobernuen arteko harremanak begirunean oinarritu behar dutela esatean. Bere hitzetan, euskarari dagokionez, ahalik eta harreman normalizatuena lortu nahi du Nafarroako Gobernuak. Halaber, bi aldeen arteko elkar ulertzea derrigorrezkoa dela azpimarratu zuen, hori lortu ezean euskarak etorkizun beltza izango duela gaineratuz. Lankidetzari dagokionez, 2008ko ekaina bitartean, elkarlanean jarduteko sortuko diren lan-batzordeak eta lan-ildoak zehaztuko dituztela jakinarazi zuen.

Azkarate Kultura sailburuak, bestalde, hizkuntzak batzeko eta komunikatzeko direla azpimarratu zuen eta ildo horretan, erakunde administratibo eta juridikoez gaindi, bi gobernuak euskarak batzen dituela gogorarazi zuen. Hori dela eta, bi gobernuen jarrera Europako Kontseiluak hizkuntza gutxituen inguruan egindako gomendioekin bat datorrela azpimarratu zuen, alegia, Europa eleanitz bat osatzeko administrazio eta gobernu desberdinen arteko lankidetzak eta kolaborazioa beharrezkoak direla ●

Parisko Adierazpena, hizkuntza-aniztasunaren aldeko adierazpena

Hizkuntzen Nazioarteko Urtearen ospakizuna baliatuz, 2008ko otsailaren 8an, Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak hizkuntza-aniztasunaren aldeko Parisko Adierazpena (testu osoa www.euskara.euskadi.net web gunean) sinatu dute, hizkuntza-politikaren alorrean sinatutako elkarlan-protokoloaren markoan.



Hiru gobernuetako hizkuntza-politikako arduradunek munduaren pluraltasuna hizkuntza guztiek gauzatzen dutela kontsideratzen dute. Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Bernat Joan Kataluniako Generalitatearen Hizkuntza Politikarako idazkariak eta Marisol López Galiziako Xuntaren Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak, bestalde, hiru gobernuen lankidetzaren garrantzia nabarmendu dute.

Parisko Adierazpena

1. Hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunaren balio oinarritzeko bat da, eta, halaber, baita Europa batu eta anitz baten aldeko berme sendoa ere.
2. Euskal, kataluniar eta galiziar hiritarrek, hiritar europar guztiek ere, beren buruak beren hizkuntzetan errekonozitzeko, aukera-berdintasuna gorde behar dute gaztelaniarekin, hiru erkidegoetan koofiziala den hizkuntzarekin. Bada, hiru lurraldeetako hiritarrek aukera izango badute beren hizkuntza propioa beren lurraldeetako komunikazio-tresna nagusia izan dadin, behar-beharrezkoa da neurri egoki eraginkorrak hartzea.
3. Aniztasun linguistikoaren koherentziaz, arbuia egiten dugu hizkuntz aukerak baliatuz jokabide diskriminatzaileak eragiten edo babesten dituen praktika oro.
4. Europar lurraldeetako botere publiko guztiak eta bakoitza erantzuleak dira hizkuntza- eta kultura-aniztasuna bermatzeko lanean. Neurri berean, botere publikoek, nork bere esparruan, hiritarrek beren hizkuntza propioa erabiltzearen aldeko konpromiso linguistiko banakoa eta kolektiboa bultzatu eta bideratuko dute, horixe baita oinarri sendoena hizkuntza-aniztasun benetako baten aldeko bidean.
5. Hizkuntzak hiritar guztien oinordetza dira. Gero eta hizkuntza gehiago entzuten da eta elkarren arteko komunikazio ugariagoa bideratzen da gure eguneroko plazan. Eleaniztasuna balio bat da gaurko munduan, balio bat da munduan hitz egiten den hizkuntza oro. Hizkuntza propioen defentsa eleaniztasunaren defentsa da, eta, aldi berean, baita hizkuntza guztien balioarena ere.
6. Espainiar estatua estatu eleanitza da. Hiritarren ehuneko 40a bizi da gaztelania ez den hizkuntza propiorik duten lurraldeetan. Hargatik eta hainbatengatik, Estatuak aurrera egin behar du hizkuntza-aniztasunaren onarpen praktikoan, eta baita neurriak hartu ere Estatu espainiarreko hiritarrei bertako hizkuntzen oinarritzeko ezaguera ziurtatze aldera, eta baita hizkuntza propiodun erkidegotako hizkuntza ofizial guztien gauzatze aldera ere.
7. Europak bere baitako mugak gainditu nahi baititu, guztiz da integrazio-bide indartsua europar errealitate eleanitz eta kulturantzaren ezagutza, horrek elkarren arteko onarpena eta desberdintasun orekatua baitakartza. Talaia horretatik, hona gure asmoa: erkidegoen arteko eta mugen gaindiko koordinazio naturala eta elkarrizketa kulturala sustatu nahi ditugu hizkuntza-errealitate antzekoak dituzten Estatuak eta Europako erkidegoen artean.
8. Munduan gero eta handiagoa, gero eta zabalagoa da elkarren arteko harreman eta komunikazio ekonomikoa eta kulturala. Gure hizkuntza propioek eta haietan egiten den kulturak beren tokia aurkitu behar dute nazioarteko joan-etorrian. Horiek horrela, modu koordinatuan lan egiteko asmoa agertzen dugu eta gure egintzak eta ahaleginak batuko ditugula agintzen, euskaraz, katalanez eta galegoz espresatzen diren kulturak promozionatzeko nazioarteko esparruetan.
9. Jabetza publikoko hedabideek ematen duten informazioak Estatu espainolaren eta Europa osoaren errealitate linguistikoa islatu behar du zuzentasun osoz.
10. Informazio eta komunikazio teknologien erabilera pertsonal eta profesionalek, zeinak tresna ezinbestekoak baitira hizkuntzak zabaldu eta suspertzeko, modu eraginkor batez egokitu behar dute Estatu espainoleko eta Europako aukera linguistiko ugarietara, horrela aniztasun linguistiko modu koherente batez berma dezaten gaur-gaurko gizartearen komunikazio-garapenean.

Honaino agertutako guztiak zinez adierazten du Europa hobe baten aldeko lana eta bertako aniztasuna errespetatzea txanpon beraren aldeak direla. Hain zuzen ere, errespetu hori guztiz koherentea da hizkuntza propioa duten gure erkidegoetako oinarritzeko identitate-zeinua zaintzarekin. Azken finean, jakin badakigu hiritar bakoitzaren aukera linguistikoaren askatasunak, neurri handi batean, Europaren erosotasuna bermatzen duela, Europak aniztasunaren onarpen eta balioztapen eraginkorretan oinarritu behar baititu batasuna zein etorkizuna ●



Jasone Cenoz



Durk Gorter

Hizkuntza-paisaiaren ikerketa

Jasone Cenoz eta Durk Gorterrek hainbat testuingurutan egin diren hizkuntza-paisaiari buruzko ikerketek landu dituzten gaien laburpena eta nazioartean zein Euskal Herrian lortu diren emaitzak bildu dituzte artikulu honetan.


Egileen esanetan, hizkuntza-paisaia ikertzea bereziki interesgarria da testuinguru elebidun eta eleanizetan; Euskal Herrian, kasu, testuinguru soziolinguistikoa buruzko eta bide publikoetan erabiltzen diren hizkuntzei buruzko informazioa eman baitezake.

Jasone Cenoz eta Durk Gorterrek idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.

Argitalpenak


Saving Languages

An introduction to language revitalization



Saving Languages. An introduction to language revitalization

Grenoble, L.A., eta Whaley, L.J.



Words, words, words

Crystal, D.

Azterlana

La vida de las lenguas en nuestra sociedad. Posibilidades de futuro

Askoren artean

Euskararen Berripapera agerkariaren edizio digitala martxan dago

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskararen Berripapera* agerkariaren paperezkoa osatzera datoren edizio digitala jarri du martxan. Horrela nahi duenak astero-astero berriak euskaraz eta gaztelaniaz jasoko ditu eta, aldi berean, hilean hileko agerkaria

eta orain arte *Hizkunea* soziolinguistikako agerkari digitalak zabaldu izan dituen edukiak. Beraz, edizio digital hori ezagutzeko gonbita egin nahi dizuegu (www.euskara.euskadi.net/berripapera) eta, nahi izanez gero, harpidetza egiteko aukera eman ●





Hizkuntza-politikaren inguruko eztabaida abian da



Euskararen Aholku Batzardeak iazko urrian egindako bilera.

Berriki burutu den zaharberitzearen ondorioz, Euskararen Aholku Batzardeak hizkuntza-politikaren alor desberdinei buruzko eztabaida abian jarriko du. Eztabaida hori berriaz sortutako batzordean egingo da, gizarte-eragile desberdinez osatutako "XXI. mende hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak" izeneko batzordean hain zuzen ere. Batzorde horrek hizkuntza-politikaren arloan egindako bidea eta aurrera begira eman beharreko pausoak izango ditu aztergai.

Era berean, zaharberitzearen ondorioz, besteak beste, bi batzorde berri eratu ditu: "Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan" eta "Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia" izenekoak.

Horietako lehenak arlo horretako hausnarketak bideratu eta dinamizatuko ditu. Bigarrenak, bestalde, euskarak alor horretan gaur egun duen presentziari eta teknologia berrietako euskarazko baliabideei buruko azterketa egingo ditu; eta, era berean, tresna edo aplikazio berriak eta euskararen presentzia Interneten areagotzeko jarraibidea proposatuko ditu ●

Herri-administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko IV. Plangintzaldia


2008-2012 urte bitartean dagokion Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko IV. Plangintzaldia helburu bikoitza du: ezagutzatik erabilera pasatzea eta euskal herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea. Plangintzaldian aurreikusitako irizpide eta gomendioen bidez, euskara ere, gaztelaniarekin batera, euskal herri-administrazioetako lan- eta harreman-hizkuntza izan dadin lortu nahi da.

Aurkezpenean herri-administrazioetako langileei dagozkien hainbat datu esanguratsu jakinarazi zituzten:

- Langileak oro har 33.889 dira eta horietatik 15.900 lanpostuk (% 46,92) du ezarria derrigortasun data.
- Langileen % 57,43k hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu du.
- 12.043 langilek euskara lan-hizkuntza moduan erabiltzeko gaitasuna dute.

IV. Plangintzaldiaren irizpideen arabera, inoiz baino langile gehiagok, 12.948k (% 38,20), parte har dezake erabilera-planetan ●

Eremu publikoan euskara gehiago erabiltzen da eremu pribatuan baino



Eremu publikoan euskaraz eta ele bitan dauden elementuen ehunekoak.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ikerketa ugari egin ditu euskararen bilakaeraren eta indarberitzearen nondik norakoak ezagutu ahal izateko. 2006 eta 2007 urteetan EAEko eremu publiko zein pribatuan hizkuntza-paisaiaren azterketa zabala egin du eta ondorio nagusiak hauek dira:

- Eremu publikoan euskararen presentzia eremu pribatuan baino nabarmen handiagoa da, ahoz zein idatziz.
- Eremu publikoan zein pribatuan, euskararen erabilera handiagoa da idatziz ahoz baino.
- Euskararen erabilera oso lotuta dago tokian tokiko errealitate soziolinguistikoarekin. Gipuzkoako egoera hobea da Bizkaikoa eta Arabakoa baino. Aldeak, batez ere, ahozkoan ematen dira.
- Administrazio desberdinen artean eta jarduera-sektore desberdinen artean ere alde nabarmenak daude. Euskararen erabilera handiagoa Eusko Jaurlaritzako administrazio nagusian Estatuko Administrazioaren establezimenduetan baino. Finantza-erakundeetan ere erabilera handiagoa da higiezin agentzietan baino.

Datu gehiago www.euskara.euskadi.net web gunean ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es

